

2023-09-29 / 789 ZENBAKIA / 19. URTEA
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA AIURRI.EUS TOKIKOM



Agintaldirako bide-orriaren aurkezpena


Andoni Alvarez Andoaingo alkateak udalaren egoera ekonomikoaren berri eman du, agintaldirako bide-orria aurkeztearekin batera. Herri bilera deitu du / 5



Manttale Urnietan sortu den kultur elkarte berria da. Sustatzaileekin elkarrizketa / 6-7

"Gazte erronka" ekimen berria, larunbat honetan Andoaingo Goikoplazan / 3

Bastero Kulturgunearen urteurreneko ekitaldi-sorta, urriaren 2an hasita / 14



Gainean dira Sanmielak

Bost egunez jaiak Urnietan, eta jarraian ospakizun gehiago Xoxokan / 6-11

KATIBOTSAN LOGIAN AURKEZTEN DUGU:

ATAUN OF THE DEAD TRILOGIA

IRAILAK 29, OSTIRALA
21:00
GOIKOPLAZAKO FRONTOIAN
IRAUPENA: 2 ORDU

BASTEROKO EKITALDI ARETOAN

Emanaldia euskaraz izango da

ANDOAINGO 1837 GUDUA

BASTERO

XOXO

URNIETAN

ANDOAINGO

KOMIKIA

GARBIÑE UBEDA MARRAZKILARIA



IRITZIA

JON ANDER UBEDA ANDOAIN

Alfajarin, Quintanapalla, Andoain-Urnieta

Andaluziako garraio enpresa baten iragarpenaren bidez jakin genuen, sare sozialak tarteko, Andoain-Urnieta mugan kamioiendako aparkaleku erraldoia zabaltzeko dela. Zerbitzu ugari dituen pausalekua, 2024an zabaldu nahi dutena. Hotela, jatetxea, kirolgunea eta irudimenerako tarte zabala eskaintzen duen "relax" (sic) delako gunea. Une horretantxe askotariko loturak egiten hasi nintzen. Ez, bereziki, distantzien artekoa. Honaino ekarri gaituzten bestelako loturak, baizik.

Andoain-Urnieta txokoan nahi gaituzte, joan-etorrian doazen ehunka garraiolari eta bidaiarientzat oinarritzko zerbitzua eskaintzen duen pausaleku huts bilakatuz. Gure udalerrien ertza besterik ez dute ezagutuko. Hanka bat jarriko dute Aranaztegiko burger enpresa ezberdinetan, erregaiez beteko dute ibilgailua, hurrengo irteeran. Eta, hortik aurrera, muga zeharkatu eta tira eta tunba infinituraino.

Andoain-Urnieta Quintanapalla edota Alfajarin pareko toki-izen bilakatuko dira, denborarekin. Autoa hartu eta hemendik kanpo ibili denak, ondotxo daki Espainia aldera joanda

Quintanapalla askoren ohiko pausalekua dela. Kataluniarantz joateko Alfajarin aukeratzen dugun bezalaxe. Eskuinera seinalatzen duen argitxoa piztu, hankak luzatu, eta gosea berdindu edo depositoa beteko dugu. Nork ezagutzen du Alfajarin? Nor sartu da inoiz Quintanapallako inguruak ezagutzera? Portzentaia txikia kenduta, gehiengoa aurrera eta atzera doa. Tira eta tunba, helmugaraino.

Txokoan nahi gaituzte, eta erabaki horiek ez dira bertan hartu. Erkidegoan edo Espainiako edo Europako errepide-mapen antolaketan, bost duroko hitzez hornitutako ordenantza eta plan horien barnean, Andoaindik eta Urnietatik kilometrotara erabaki "estrategikoak" hartu dira. Baten batek erabaki zuen, Europako trafikoaren joan-etorri handi horretan, Beterrri-Buruntza pausaleku bilakatuko dela. Astigarragako lur-eremu zabala kamioi gidarien atsedeneku bihurtu da. Andoainen eta Urnietan hedadura handi samarra lanpostu gutxi eta prekarioak sortzen dituen zerbitzuak eskaintzeko. Nonbait, eta ez Andoainen edo Urnietan, erabaki zen lanpostu

kualifikatuen enpresa handiak Debagoienan eta Goierrin ezarriko zirela. Donostialdean, aldiz, puntako teknologiarik eta farmazeutikari lotutako industria. Beterrri-Buruntza? Zer da hori? 2023a joaten ari zaigu eta gure eremuko garapen-agentzia da Gipuzkoan abiatzeko den bakarra. Egitura juridikoa badu, erabaki batzuk hartzen dira. Baina ez da gainerako eskualdetako egituraketara iritsi. Kasualitatea? Kausalitatea?

Eskualderako plan berriak gorpuztu eta gauzatzeko, errepide-mapa sareak zeharkatutako herrigunea izango da gurea. Urnieta, sikiera, udalerrira garatzeko gaitasuna irabazi zuen A15a eraiki zenean. Andoainen, berriz, zeregin hori itxi gabe dago. N1 eta A15 errepideen lotuneak sortzen dituen arazoei irtenbidea emateko egungo errepide-mapa berdimentsionatzen badute, itota geratuko gara, bi errepide-sare handien artean. Garapenerako aukera eskasa izango dugu. Aberastasuna joan-etorrian ikusiko dugu, abiadura handian doazen ibilgailu eta kamioietan garraiatuta. Eta azkar eta merke ekoizten dituzten burger horien apurra besterik ez dizkigutela utziko sentituko dugu.

Urtebete atzera, Andoainen herritar talde bat plataforma batean elkartu zen, C2 delako aukera horren aurka protesta egiteko. Ekimen horrek ahaztu samar genuen eztabaidagaia jarri zuen erdigunean. Udalerririk garatzeko tresna Hiri Antolamendurako Plan Orokorra dela, eta Andoain herri bizigarria izateko aukerak badituela. Hamarkada luzez, adostasun politiko zabala izan zen, udalerrien etorkizuna irudikatzen zuten baldintza. Azken urteotan, adostasun zabal hori haustearekin batera, udalaz gaindiko erakundeetatik andoaindarrentzat bestelako planak dituztela ondoriozta genezake. Goitik behera iritsi dira errepide sarea berdimentsionatzeko planak. Orduan sortu zen herriko alderdien arteko kalapita.

Herritarrek kexu agertu direnean, udalaz gaindiko erakundeek begira jarrita, bertatik iritsi den *feedback*-a ez da oso eraikitzailea izan, bestalde. Arkitekto bihurtu al dira andoaindarrak, goizetik gauera? Aurreko agintaldiko diputatuak bota zuen, protesta egiten zutenen argudioak gogoan.

Bada, Andoainen eta Urnietan tajuzko galderak egiten dituzte herritarrek.

Berriena delako, Urnietan zabalduko duten gasolindegia

erraldoiaren proiektua azter dezagun. A15 autobideak, mila metro eskasetan, bi irteera ditu Irungo norabidean: Aranaztegi-Ergoien eta Erratzu. Berriki iragarri duten moduko gasolindegia erraldoirako ideala. Dena legala da, eta Udalak jarduera ekonomiko berriari baimena ematea beste aukerarik ez du. Bada, auskalo nongo bulegoan egitasmo hori garatu dutenek jakin badakite metro gutxira ehunka kalitatezko menu eskaintzen duen jatetxea badagoela? Ba al dakite metro gutxira dozenaka logela dituen hotel berri eta prestua dagoela? Eta ba al dakite ondoko industrigunean erabiltzaile berriak hartzeko prest dagoen kirol zerbitzuak eskaintzen dituen enpresa bat dagoela? Eta dagoeneko badirela hiru gasolindegia, elkarrengandik oso gertu? Galdera horiek irakurtzen dituen udalaz gaindiko goi kargudun edo politikariren batek, ziur, barre egingo du. Zer nolako burutzioak dituzten *herriko arkitektoek!* Lasai egoteko, eta herritarrentzat "ona eta onena" dena egiten ari direla adieraziko digu gobernu ardurak dituen bozeramaileak.

Andoain? Urnieta? *Peccata minuta*. Halaxe doa marrartzuz gure destinu petrala.



Gazte erronka Andoainera iritsiko da, aste honetan. KILOMETROAK

Andoaingo Gazte erronka, ostegun honetan Goikoplazan

Lehen edizioa izango da aurtengoa. 12-14 urteko gaztetxoek parte-hartzea sustatzea helburu du

Erredakzioa ANDOAIN

Andoaingo Udaleko Euskara eta Gazteria lansailak, Gazte Lokala eta ikastetxeekin batera, Gazte Erronka ekimena antolatuko du. Jolasa, kirola eta adimena uztartuko dituen jolas-sorta izango da, euskara ardatz hartuta. Hiru ikastetxeetako 12-14 urte bitarteko gaztetxoek parte hartuko dute.

Lehen aldiz egingo da Andoainen. Gynkana modukoa izango dela aurreratu dute, Leizaran institutua, La Salle-Berrozpe ikastetxea eta Aita Larramendi Ikastolako 1. eta 2. DBHko ikasleek parte-hartzearekin. Guztira, 352 gazte deituta daude.

Tarte atsegina igaroz, euskara ahoan izatea helburu dute antolatzaileek. Hauxe, prentsa-oharrean jasotako argudioa: "Gure herrian umeez eta gaztetxoek D ereduaren ikasten dute, hau da, euskaraz egiten dute

ikasketa ibilbide osoa, baina gelatik kanpo horietako asko ez dira gai eguneroko harremanetan euskaraz aritzeko. Gaitasun hori lortzeko guztiz funtsezkoa da aisialdian eta egoera ez formaletan ere euskararen erabilera trebatzea".

Helburu nagusi horrekin batera, beste helduleku batzuk izatea nahiko luke Euskara lansailak. Hala nola, gazteen arteko lankidetzaren sustatzea, ikastetxeen arteko harremanak sendotzea, eragile desberdinen arteko kolaborazioa sustatzea...

Platape Kirol Klubak bideratuko du bi orduko iraupena izango duen saioa, eta antolatuko diren taldeetan hiru ikastetxeetako ikasleak egongo dira nahastuta.

Euskararen protagonismoa indartzeko Jokin Goikoetxea DAZN telebista kateko esataria arituko da 'speaker' lanetan.

Edizio berria martxan

"Parketarrak" egitasmoa bueltan da, Andoaingo Udalaren Euskara lansailaren eskutik. Familiei eta haurrei euskaraz jolasteko baliabideak eskaintzea da helburu nagusia, eta, horretarako, herriko bi jolasgune nagusietan haur txoko modukoak antolatuko dituzte. Hitzorduak Goikoplazan izango dira asteartero, eta, Zumea plazan, asteazkenean.



AIURRI

Parketarrak

Egunik onenak elkarrekin euskaraz jolasean

Andoain

Urriak 3, 10, 17, 24
asteartekak

Zabu-Zibu (Helduekin)
(3-5 urte) 17:15

Txirrintxon
(6-9 urte) 18:15

Goikoplazan *

Urriak 4, 11, 18 eta 25
asteazkenak

Zabu-Zibu (Helduekin)
(3-5 urte) 17:15

Txirrintxon
(6-9 urte) 18:15

Zumea plazan

* Nafarroa plazan

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

ORAIN GIPUZKOA

ANDOAINGO UDALA

andoainOndoaingo Udala

hezten

aisialdi euskaltzalea

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa



ANDOAINGO UDALA



andoainOndoaingo Udala



Andoaingo eta Tolosako instalakuntzatan greban ari dira Asuncion klinikako langileak. AIURRI

"Zerbitzu publikoa eskaintzen dugu, baldintza kaskarretan"

Asuncion klinikako langileek 22 greba-egun burutu dituzte, maiatzaz geroztik. Hurrengo biak, irailaren 28-29rako deitu dituzte. Kotxe-karabana egingo dute eskualdean hilaren 28an, eta 29an Gasteizko legebiltzarrera eramango dute protesta

Xabier Lasa ANDOAIN

Lan baldintzak hobetzea eskatzen dutela adierazi dute langile-batzordeko lau ordezkariak (Marian Etxeberria, Silvia Gonsalves, Aitziber Sagredo eta Beatriz Mendia). Gogoratu behar da klinika pribatu-kontzertatua dela Asuncion, eta Gipuzkoan Tolosaldea eskualde-ospitallerik ez duen bakarra izanik, Eusko Jaurlaritzarekin egindako hitzarmenaren bitartez, eskualdeko ospitalearen osasun zerbitzua eskaintzen duela. 27 udalerriri, 65.000 biztanleei. Jesus Gomez Montoya buru duen Inviza S.A. enpresa da Asuncion klinikaren jabea.

Nola doa greba-sorta?

Beatriz Mendia: Ekonomikoki eta animikoki, sakrifizio handia da hainbeste egunetako greben dinamikari eustea. Baina tinko jarraitzen dugu geure jarrerarekin, uste baitugu arrazoia dugula eta justiziazko aldarrikapenak egiten ditugula.

Zenbat langilek osatzen duzue Asuncion klinika?

Marian Etxeberria: Izaskungo klinika eta Belate eta Andoaingo zentroak kontuan hartuta, 300 bat langile izango gara. Ez da ahaztu behar medikuek ez dutela protestetan parte hartzen, beren hitzarmen propioak baitaukate.

Asuncioneko erabiltzaileak nola ari dira erreakzionatzen zuen protesten eta lan uzteen aurrean?

Silvia Gonsalves: Ulerkorrek dira, eta pittin bat informatzen direnek animoak ematen dizkigute. Erabiltzaile batzuk gutuna uzten ari dira zuzendaritzan, langileen eskakizunekin bat datozela adierazteko. Nolanahi ere, esan daiteke klinikako erabiltzaileak apenas nabaritzen ari direla greba, zerbitzua normaltasunez jasotzen ari baitira. Izan ere, langile askok ezinezkoa dute grebarekin bat egitea nahiz eta hala nahi izan, gehiegizkoak baitira lan delegaritzak ezarritako gutxieneko zerbitzuak!

Urteko zenbait alditan, abuztuan-eta, langile gutxiago aritu izan dira lanean, greba egunetan baino. Esate batera, lau langile aritzen diren gela batean soilik batek egin dezake lan uztea; hortaz, greba egun horretan, beste hiruek laugarrenaren eginbeharrak bete beharko dituzte.

Baldintza horiek direla eta, ohartzen ari gara, penaz, gure egoerak eta aldarrikapenek ez daukatela behar beste oihartzun gizarrean.

Zeintzuk dira zuen eskakizunak?

B.M.: Lan-baldintzekin dute zereikusia: soldata, lan-orduen kopurua, lan-karga... Azken batean, eskualdeko ospitale publikoen antzerako zerbitzuak eskaintzen ditugu (Osakidetza-tik datoz Asuncionek jasotzen dituen pazienteen % 90-95a), baina lan-baldintzak ez dira inolaz ez antzekoak.

S.G.: Klinikako nagusiak etengabe azpimarratzen du eskualdeko erreferentziako klinika dela Asuncion. Bada, ideia horri eutsita, Osakidetza beste eskualdeetako langile publikoen lan baldintzekin alderatzen bagara, bada, alde, okerrera, nabarmen-nabarmena da.

M.E.: 2021etik berri gabe daukagu lan-hitzarmena, eta bien bitartean, % 12,2koa da galdu dugun eros ahalmena. KPIa erreferentziatzen hartuko duen soldata igoera eta 35 orduko lan astea jaso beharko lituzke hitzarmen berriak. Egundak, Osakidetza langileen oinarritzko soldata berdintsua eduki arren, ez daukagu haiek dauzkaten osagarriak, eta horiek ezartzen dute haien eta gure arteko alde, handia dena.

Lan-karga aipatzen duzue.

S.G.: Lan-taldeak ahal den gehiena eta ahal den gehienetan murriztea da enpresaren filosofia. Horrek ekartzen du geroz eta langile gutxiagok lan gehiago egin behar izatea, eta, ondorioz, besteak beste, herritarrentzat zerbitzuaren kalitatearen jaitea eta langileoi estresa eta antsietatea sortzea.

B.M.: Azken batean, langileen profesionaltasunarekin eta pazienteekin daukagun konpromisoarekin jokatzeko dute. Badakite dena emango dugula aurrean daukagun gaixo horrekin, eta aurrera!

M.E.: Lan baldintza kaskar horiek direla medio, gero eta lan-

kide gehiago Asuncion utzi eta langileen premian dabilen Osakidetza joaten ari dira. Baita 18 urte bertan zeramatanak ere!

Negoiazioak, nola doaz?

S.G.: Blokeatuta, une honetan. Enpresak ez du borondaterik erakusten, eta soilik % 2 igotzea eskaintzen du, hortik ez da mugitzen. Adierazten digute Eusko Jaurlaritzaren erantzunaren zain daudela, harekin daukaten hitzarmena berritzeko eta diru gehiago jasotzeko, eta bien bitartean, ezin digutela ezer gehiago planteatu.

Zuzendaritzatik adierazten zaigu Asuncionek ez daukala irabazirik. Baina ez zaiguna esaten zera da, ogasunarekin zorrak dauzkala, eta horrexegatik ez zaiola komeni irabazirik edukitzea eta horiek aitortzea. Ikuspegi orokor batetik aztertuz gero, ohartzen gara Asuncion Inviza enpresako zati bat dela, eta enpresa horren azken lau urtetako irabaziak ez direla mauka, ia 6 milioi eurokoak!

Asuncion klinika ospitale publikoa % 100ean izatea eskatzen duzue.

B.M.: Halaxe da. Hurbileko eskualdeko ospitale publiko batek ematen dituen zerbitzuak izango dituen, eta klinikan egun lan egiten duten langile guztiak hartuko dituen.

Ez dauka zentzurik zentro berri bat eraikitzea, orain Asuncion martxan egonik. Egin kontu ez dela asko ekin zaiola Asuncioneko instalakuntzen eraberritzeari: hain zuzen, solairuak, larrialdiak, kontsultak eraberritu dira, eta orain falta dira ebakuntza-gelak, bitarteko zaintzako unitatea eta ospitaleratzetik gabeko kirurgia-unitatea. Instituzioek benetan borondate politikoa edukiko balute, hortik jo beharko lukete.

Eskualderako ospital berria iragarri dute erakundeek azken aldian.

M.E.: Ospital publikoaren alde gaude, jakina, baina nahiko kritikoa gara aurkeztu duten Plangintza Integralarekin. Hainbeste urtetan zain egon ostean, haustekundeentzako testuinguruan egin izanak sortzen dituen zalantzak alde batera utzita, esan behar dugu plangintza horrek ez dituela ohiko ospital publiko baten zerbitzu asko planteatzen; esate batera, ingresua eskatzen duten kirurgia-operazioek Donostiara joan beharko lukete, sukalde eta garbiketa esternalizatu egiten ditu...



Barrasa, Usandizaga, Lasa, Alvarez, Barandiaran eta Fondon Gobernu taldeko partaideak, astearte eguerdiko agerraldian. AIURRI

Ibilbide-orria aurkeztu du Andoaingo gobernu taldeak

Hedabideen aurrean eta herritarren aurrean, Andoaingo Udal gobernu taldeak 2023-2027 ziklo politikorako asmoak agertu ditu. Horra iritsi aurretik auzoz auzoko bisitaldiak egin dituzte, eta erakundearen egoera ekonomikoaren azterlana egin dute

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Gardentasuna, zintzotasuna, gertutasuna. Balore horien baitan lan egiteko konpromisoa hartu du Andoaingo Udaleko gobernu taldeak, herritarren aurrean. Eskuorria zabaltzen ari dira etxez etxe, eta balore horiekin batera egungo egoeraren analisisia egin du Andoni Alvarezek zuzentzen duen lantaldeak. Testuinguru korapilatsua bizi dugu, mundu zabalean, eta horrek eragin zuzena du

egunerokoan. Zeharkalteak zerrendatu dituzte. Besteak beste, honakoak: oinarritzko elikagaien prezioen igoera neurrigabea, gazteentzat lan baldintzak eta emantzipaziorako aukera eskasak, etorkizunarekiko kezka... Herrian begirada jarrita, Andoainek baditu arazo eta erronka potoloak. Gobernu taldeak lehentasuna jarri du hiru alorretan: Etxebizitzaren arazoari irtenbidea ematea, antolamenduan eta herritarrei erantzun

hobea eman asmoz Udal administrazioaren antolaketa eraldatzea eta, hirugarrenik, N1 eta A15 errepideek herria garatzeko sortzen duten korapiloa askatzen ahalegintzea.

Atariko horren ostean, pertsonak, azpiegiturak eta herri-gintza kontutan harturik neurri-sorta proposatzen dute. Zehazki, 73. Lau urte dituzte aurretik, zerrendatutako lan ildo horiek guztiak aurrera eraman ahal izateko. Aparkalekuak, kale

garbiketa, edukiontziak, ur kontagailuak... egunerokoan erabiltzen diren –eta udalaren eskumeneko diren– alorretan eragin nahi dute. Hirigintza alorrean, Etxeberrietan eta Ama Kandidan bizigune berriak sortzeko jauzi kualitatiboa eman nahi dute. Etorkizunari begira, Hiri Antolamendurako Plan Orokor berriaren oinarriak finkatu nahi dituzte.

Klima larrialdia bizi dugula sinetsita daude, eta horren aurrean berdeguneak handitu, itzal-gune berriak egokitu edota auto elektrikoentzat errenergia-puntuak egokitu nahi dituzte herrian.

Zahartuz doan gizartea da Euskal Herrikoa, eta Andoaingo Zaintza plana osatu eta martxan jarri nahi dute. Bestalde, Berritasun plan berria lantzen hasi nahi dute eta etorkizun hurbilean Emakumeen Etxea errealitate bilakatzeko lan egingo dutela iragarri dute.

Ikasturtea hasi da, eta dagoneko EHBilduk ehun egun egin ditu alkatetzan. Denbora horretan auzoz auzoko bisitaldiak egin dituzte, eta herritarrekin hartu-emanetan eskaera asko dituzte. Era berean, udal erakundearen egoera ekonomikoa txosten batean bildu dute. Bisitaldiak eta azterlanak eginda, hedabideen aurrean eta herritarren aurrean agertu dituzte 2023-2027 ziklo politikorako asmoak. Laburbilduz, egoera ekonomikoari begira, gastu korrontearen azterlan zorrotzari ekingo diote etorkizuneko estuasunak saihestu nahi badituzte. Politikagintzaren alorrean, 73 neurri egingarri proposatu dituzte. Aurkezpenak eginda, adierazitakoa errealitate bilakatzen ahalegintzeko aroan murgildu dira.



liñaki Gozalo da egilea. ZIRRIMARRA

"Andoaingo bizitzeko", lema berria

Andoaingo bizitzeko: Zainduko zaituen herri bat. Biziko duzun herri bat. Hiru esaldi horietan laburbiltzen da gobernu taldearen xede nagusia. Irudi bilakatu dute, identifikaziorako marka berria sortuz, Andoaingo armariaren alboan agertuko dena.

Ikasturtea abiatzearekin batera, Udal gobernu taldearen xedea bikoitza izan da. Egoera ekonomikoaren berri zehatza izatea, eta agintaldirako lehentasunak zehaztea. Agerraldi bikoitza egin dute, hedabideen aurrean. Eta, horrez gain, asteazken honetan herri bilera deituta zuten Bastero Kulturgunean. Hain zuzen, Andoni Alvarezen agintaldiak ehun egun bete dituenean.

AIURRI
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



Egunerokoaren jarraipena

Agerraldiak, albisteak, agenda

KLIK BAKARRERA

www.aiurri.eus



Xabier Salaberria eta Koldo Tapia Manttale elkarte berriko partaideak dira. AIURRI

"Euskaltzaletasuna biziberritzeko sortu dugu Manttale elkarte"

XABIER SALABERRIA ETA KOLDO TAPIA MANTTALE KULTUR ELKARTEKO KIDEAK
Euskararen erabilerarekin kezkatutik, eta euskara kalean zabaltzeko asmoz, elkarte berria martxan da Urnietan. Jaietan egingo dute aurkezpen-ekitaldia

Xabier Lasa URNIETA
Manttale Kultur Elkarte sortu berri dute Urnietako zenbait euskaltzalek. Xabier Salaberria lehendakariak eta Koldo Tapia idazkariak azaldu dutenez, Urnietan euskara kalean zabaltze-

ko dagoen premiak eragin die elkarte sortzea.

Zerk mugitu zaituzte elkarte sortzera?

Koldo Tapia: Urnietak bizi duen egoerak eraginda sortu dugu. Hain zuzen, Urnietan, euskal

kulturgintzaren ikuspegitik, inongo erreferentzia sinbolikorik gabe gaudela esan daiteke. Iraganean egin zuen bere ibilbidea Iñistorra elkarteak, baina itzaltzen joan zen denborarekin. 2019an, zerbait egin behararen

ideiak bultzatuta, zenbait urnietarrek kalera ateratzea erabaki genuen, Kantazaun taldearen eta euskal kantutegiaren eskutik. Pandemia etorri eta dena hankaz gora jarri zuen, baina indarrean segitu zuen gure egitasmoak.

Argia da Urnieta jomugan hartuta egiten dugun diagnostikoa: herria euskalduna dela adierazi ohi da, % 75ek ezagutzen dutela eta hau eta beste. Baina gero, errealitatea, penagarria da, kale erabilera % 21eko portzentajera jaisten baita! Badago aldea, dakitenen eta erabiltzen dutenen artean! Gauzak horrela, herrian badago gizarte sektore bat iraganean euskal kulturgintzan zenbait dinamika kolektiboak bizi izan dituen, baina, egun, beste zenbait dinamika berriekin itota geratu dena, adinean aurrera doana, eta egun erreferentzia sinbolikorik ez daukana. Eta, hain zuzen, gizarte sektore hori kohesionatzeko jaio da elkarte. Beti ere, euskara ardatz izanda, jakina.

Ez daukagu "euskara salbatzeko" asmorik, eta ez dugu planteamendu soziolinguistikoko burutsurik egiten. Euskara ka-

lera ateratzea da gure gogoia. Kantuarekin hasiak gara, baina etorriko dira bestelako ekimenak eta dinamikak. Prozesua abiatu besterik ez da egin.

Dinamika berriek itota dagoen sektorea diozue.

K.T.: Gizartean azken urteetan ematen ari diren prozesu eraldatzaileak hain diren latzak eta azkarrak, alde guztietatik hain dira berritzaileak, gizarte sektore bat egoera berrira egokitu, eguneratu ezinik dabilela. Halaxe ari da gertatzen euskalgintzan, gizarteko beste hainbat arlotan bezainbeste, neutralizatuta eta noraezean geratu dela hainbat jende. Zenbait, azken urteetan, probatzen ari gara badagoela jendea kalera irteteko gogoz, pentsatuz kalea irabazi litekeela, euskara ia desagertuta dagoenez Urnietako kaleetatik. Jende hori aktibatu nahi dugu, modu ludiko eta xume batean, egundoko pretentsiorik gabe. Erakutsi nahi dugu ez gaudela prest balkoitik begira-begira geratzeko. Ez gaude prest behien antzera jarduteko, trenari begira; trenean bidaiatu nahi dugu, aurreko nahiz atzeko furgoian, berdin zaigu.

Xabier Salaberria: 50 bat lagun inguru izan ditu Kantazaun egitasmoak azken urteetan, eta zenbaki koskorra da. Hortik abiatuta, jende gehiagorengana heltzea espero dugu. Sanmiel jaietako bazkarian abiatuko dugu bazkide kanpaina. Hasi aurretik, jada jende mordoia egin da bazkide elkarteetan. 10 euroko kuota da urtero, kopuru sinbolikoa guztiz.

Elkarteari jarri dizuen izenak ba al dauka esanahi berezirik zuentzat?

K.T.: Aparteko zerarik ez diogu erantsi nahi izan, egia esan. Fonetikoki oso polita egiten da izen hori, Urnietako toponimian errota dago Adarramendiko natur parajeetan, eta urnietarrentzat aski ezaguna egiten da. Dena esatera, hasieran, elkartearen sortze-prozesuan, Arragoa ipini genion elkarteari. Xabier Letek ekarria zuen euskal kulturgintzara, Nafarroa Arragoa kontzeptuarekin; "altzairutegia" edo "ontzia" da, berez. Osagai desberdinez osatutako altzairua labearen sartzen denean likido bihurtzen da, eta arragoa da, hain zuzen, likido hori hartzen duen ontzia. Nafarroa, historian barrena, kultura desberdinen arteko lotura izan denaren ideia



nahi izan zuen zabaldu Letek, eta gogoko genuen hitz hori. Kontua da, erregistratzeko orduan atzera bota zigutela, lehendik Urolako elkarte batek hartuta zeukalako.

Horrenbestez, beste zenbait izen hautatu genituen, eta bozketan jarrita, Manttale irten zen, boto gehien jasota.

Zuen burua aurkezteko asmorik?

K.T.: Presarik gabe, baina herrian kultur gintzan dabilzan taldeekin biltzeko gogo daukagu. Elkarren artean borondateak koordinatu, sinergiak bateratu eta dinamika berriak abian jarri beharko genituzke. Aldi berean, ikusten dugu premiazkoa Udalaren aurrean elkartuta agertzea, ezbaian jartzeko naturalizat jotzen diren zenbait errealitate. Esate batera, Sanmieleako Jai Batzordearena lotsagarria iruditzen zaigu; izan ere, Jai Batzordea deitua izateko, nortasuna eta autonomia behar luke eduki batzorde horrek, egun ez daukana. Edota, Udalarari uztailean hurrengo urteari begirako egitasmoak aurkeztu beharreko arau hori ere, zentzugabea dela iruditzen zaigu.

Inori lezioak ematera ez gatoz, gutxiago gazteei. Beraiek egin behar dute bidea, egokiena ikusten duten moduan. Gure aldetik, zabaldu dezakegun mezua da erabateko irekitasuna daukagula elkarlanean jarduteko.

Etorkizunerako, zehaztu ditzakezu zein egitasmo dituzuen buruan?

"ERREALITEA PENAGARRIA DA, KALE ERABILERA % 21ERA JAISTEN BAITA"

X.S.: Abian besterik ez da jarri elkarte, eta poliki-poliki joango dira gauzatzen ekimenak, Koldok aipatu duen eran. Hasteko eta behin, euskal kantagintzaren bidetik, zenbait hitzordu daukagu lotuta. Izan ere, Urnietan erreferente bihurtu gara. Gizarteko hainbat ekimenetan aisa moldatzen den taldea da gurea, edonon eta edonoz parte hartzeko prest gaudela daki jendeak, eta dei ugari izaten ditugu. Merkatariekin ibili gara orain aurretik, eta hurrengo aste eta hilabeteetan zahar egoitzan egingo dugu bisita, Gabonak datoz, Santa Ageda dator ondoren... Oraingoz ereiten ari den, eta, beraz, iragarri ezin den herri-ekimen sendo batean ere parte hartzekoak gara agudo.

Sanmielen egitarauaren osaketan parte hartu duzue, baina Manttale izenik ez da agertzen.

K.T.: Programa osatzeko orduan ez genekien elkarte ofizialki erregistratuta egongo zen ala ez, eta horrexegatik azaltzen da Kantazaun taldea antolatzaile gisa. Egia esan, benetan nekagarria den egoera administrabotrabatsuekin egin dugu topo sortze-prozesuan, baina, kostata, lortu dugu, azkenean, elkarte sortzea.

X.S.: Bertso-kantu bazkaria izango da txosna gunean, urriaren 1ean. Agirre anaiek, Unaik eta Eñautek, "Bertso zaharrak" izeneko ikuskizuna eskainiko dute, Fermin Zinkunegi soinu-jotzailearekin batera. Egundoko saioa egiten dute Agirre anaiek, ikusgarria, Pello Mari Otañoren, Txirritaren eta beste hainbaten bertso sailak kantatuz.

Egoera administratibo trabatsuz, zer daukazue esateko, bada?

K.T.: Egun, Urnietan, eta gainerako herrietan, herrigintzan eta kultur gintzan zerbait antolatu

nahi baduzu, izaera juridikorik ez baduzu, ez duzu ezer egiteko aukerarik edukiko. Ate guztiak itxita! Halakoetan, joan behar duzu udalera hitzarmen bat sinatzera, baina modu pertsonalean egin behar da faktura. Era horretan, pertsona horrek errenta aitortpena egiterakoan gero, komeriak sortzen zaizkio. Baldintza horiek kontuan izanda, zein sartzen da herriaren mesederako diren ardurak hartzera? Elkarte sortzeko prozesuan sartzea erabakiz gero, bidean topatzen diren trabak, nekagarriak egiten dira, are gehiago adinez aurrera goazenontzat. Elkarrearen estatutuak sortzen dituzu eta egin behar den tramitazio burokratiko guztia, nekagarria izan ohi da: telematikoa da kudeaketa dena, eta terminologia modernoetan aditua behar duzu izan, firma elektronikoa atera, kasik doktoretza egin behar da informatikan... Ekin eta ekin, ez da sinestekoa zenbat ordu sartu ditugun...

Jakina da behar duela egon diru publikoaren kontrola! Baina egitera derrigortzen dizuten bide korapilatsuak, motibazio guztiak zapuzten dizkizu; erotu, eta agur esatera bultzatzen! Hori ez da administratibotrabatsuekin adierazten duten bezala, auzolana piztea, hori edonor zapuztea da gehiago. Aurrera atera ezin daitekeen gizarte dinamika batera bultzatzen ari dira, praktikan. Eta salagarria da errealitate hori.

"ERABAT IREKITA GAUDE BESTE ELKARTEKIN ELKARLANEAN JARDUTEKO"




Manttaleko aterpea. AIURRI

Mantele (Manttale), Urnietako toponimian errotuta

Urnietako toponimiari erreparatuz gero, ohartzen gara Mantele, Adarramendiaren iparraldeko magalaren izena dela, eta inguruan beste hainbat toki-izen agertzen direla: Manteleko zabala, Manteleko harkaitza, Manteleko iturria, Manteleko elurzuloa... Paraje berean, iturriaren ondoan, eraikitako bordak ere Mantale izena ipinita dauka.

Euskal filologian doktore eta euskaltzain urgazle den Luis Mari Zalduak 2011ean egin zuen Urumeako Zilegimendietako toponimia tesian agertzen denez, aurrenekoz 1.538an irakur daiteke dokumenturen batean. Harrez gero, sarritan azaltzen da, Mantele formarekin beti. Ahozko tradizioan, Mantale nagusitzen da. Aldi berean, "t" kontsonantearen sabaikaritzea edo bustidura (konnotazio berezia adierazi nahi denean, esate batera, txikitasuna, goxotasuna edo maitasuna adierazi nahi denean), gertatu da hitz horrekin. Hitzaren sustraiari dagokionez, Mantele, erdiguneko euskalkiko eta nafarrerako maindira/e latinezko mantele edo mantile-tik dator. Beran (Bortzirietan) Manttale izeneko tokia dago, eta izen hori hartua dauka mendi lasterketako talde batek.



Manttaleko zabala. AIURRI

**HOTEL
HK10
HOTELA**

943 33 73 57
info@hotelk10.com

GORA URNIETA!

GORA SANMIELAK!



SANMIELAK URNIETAN 2023

SANMIELAK 2023 ASTEAZKENA 27

19:30 Mielaren jaitsiera, elizako kanpandorretik. Txupinazoa Txanbolinen eskutik.

20:00 Rockalean elektrotzaranga, plazatik abiatuta.

20:00 Sardina-jatea txosnagunean.

23:00 DJ Karlos Salvatrutxa-ren saioa txosnagunean.

OSTEGUNA 28

10:00 Diana Txanbolinen eskutik.

10:30 Alkate Txikien izendapena udaletxean: Irati Aierdi Ziaurritz eta Asier Montes Roman. Egapek Belauntxingoa dantzatuko du.

11:00-13:00 / 16:00-18:00 Plisti Plasta ekojolasak 4 hilabetetik gorako haurrentzat, Egape ikastolako frontoi txikian. Haurrentzat puzgarriak eta jokoak.

17:00 Bingoa, Elkarteen Etxean, Denda Berrik antolatuta.

17:30 Haurren Kontzejupeko esku pilota txapelketaren finalak.

18:30 Herriko buruhandi eta erraldioen kalejira San Juan plazatik Plazido Muxika plazara, dultzaineroak lagunduta.

18:30 Eskupilota udal pilotalekuan. Olatz Ruiz de Larramendi / Ainhoa Ruiz de Infante. Paul Ojuel, Iban Azanza / Aitor Mendizabal, Imanol Odriozola.

19:00 Plazan "Dantza festa": Lorea Intxausti, Asier Burguete eta Joanes Etxebersten parte hartzearekin. Euriarekin Egape Ikastolan.

20:30 Pintxo lehiaketa txosnagunean.

23:00 Nahi ta ezin, Lappa eta DJ Albabarruna herriko taldeak txosnagunean.

22:30 Diskofesta: Nemux plazan. Euriarekin Egape Ikastolan.

OSTIRALA 29

09:30 Diana Txanbolin taldearen eskutik.

11:00 Meza Nagusia. Udal korporazioa udaletxetik elizara joango da, Alkate soinu doinuak lagunduta.

12:30 Txanbolin Txistulari Bandari Udalaren omenaldia, udaletxeko Batzar Aretoan. Agurra Egape dantza taldearen eskutik.

13:00 Txanbolin Txistulari bandaren kontzertua plazan, Egaperekin batera. Euriarekin Saroben.

14:00 Adinekoen bazkaria Oianumen.

17:00 Herri kirolak Egape ikastolan. Aizkoran eta harrijasotzen, bikoteka: Beñat Telleria eta Nerea Arruti / Xabat Olaizola eta Oihana Fernandez de Barrena. Aizkolaria bakarka: Malen Barrenetxea.

17:30-19:30 Haur jolasak plazan. Euriarekin, Egapeko frontoi txikian.

17:30-19:30 Agirre taldeak girotutako dantzaldia, Elkarteen Etxean.

18:00 Jokoak, Txosna batzordeak antolatuta.

21:00 Afaria Txosna batzordeak antolatuta. 22:30-23:30 Neomak plazan. Euriarekin, Egape Ikastolan.



San Juan plaza jaiaren erdigune izango da, egun hauetan. AIURRI

00:00 - 02:30 DJ LaMia Mari plazan. Euriarekin Egapen.

23:30-03:00 Ameba, Leizeak, Rodeo eta DJ The North Tech txosnagunean.

LARUNBATA 30

10:00 Diana Txanbolinen eskutik.

11:00 12-12 urtekoentzako bizikleta jardunaldia.

12:00 Aperitiboa Elkarteen Etxean.

12:00 Poteoa Txosnagunetik abiatuta.

12:00-14:00 Kuadrillen kalejira.

14:00 Paella jatea, plazan. Berdeak taldeak eta Etxeberri Plazako auzo elkarteko kideek antolatuta. Tiketak Guria eta 2KNen salgai. Euriarekin, Egapen.

14:00 Bazkaria Txosna batzordeak antolatuta, Tiketak Matxo, Kantoi eta Zaldundegi tabernetan salgai.

14:30 Emakume kuadrillaren bazkaria.

16:30 Neu taldearen kontzertua.

17:00 Kuadrillen kalejira Pasai txarangarekin.

17:00-18:00 Plazan, kale antzerkia. "Troia", Kamikaz Kolektiboaren eskutik. Euriarekin, Egapen.

18:00-20:00 Radio Rebelde Covers. Euriarekin Egapen.

18:30-20:30 Urdanborren irteera Kiroldegitik.

19:00 Urdanborren saioa elizan.

19:00 Malatxo txaranga txosnetatik abiatuta.

23:30-03:00 Kontzertua: Odei, TOC, Raimundo El Canastero, DJ Latxironga.

00:00-01:30 Urdanborren bigarren irteera Idiazabal kaletik.

00:00-03:00 Tsunami Orkestra. Euriarekin, Egapen.

IGANDEA 1

09:30-11:30 Bolo txapelketa.

10:00 Diana Txanbolinen eskutik.

12:00 Salestarrak Magale haur danborrada.

12:00 Meza Nagusia.

12:00 Batzokiaren eskutik, Munduko ardoak Kontzejupean.

14:00-18:00 Bertso bazkaria: Fermin Zinkunegi eta Agirre anaiak kantuan ariko dira. Tiketak 2KNen salgai, irailaren 27a arte.

17:30 Txekor jate solidarioa eta sagardo dastaketa plazan. Euriarekin, Egapen.

17:30-19:30 Erromeria: Iratzar.

18:00 Dantzaldia. Agirre taldea Elkarteen Etxean.

18:30-20:30 Willy Etxeberria zesta punta jaialdia. Martin Mujika erremonte Jaialdia: Ansa II, Azpiroz / Goikoetxea V, Loitegi.

18:30 Rukula txosnagunean.

19:30 Dantza-Soka plazan.

20:00 Mielari agurra, zezen suzkoa.

22:00 Txosnen itxiera.

AIURRI.EUS

Jaien jarraipena webgunean: Albisteak, argazki-bildumak, bideoak.



Sanmielen jarraipena webgunean

Albisteak, argazki-bildumak eta bideoak
KLIK BAKARRERA

www.aiurri.eus



XOXOKAKO JAIAK 2023

ASTELEHENA 2

12:00 Jaien hasiera.

12:30 Herri kirolak: Telleria eta Mugertza anaiak, elkarren aurka. Ondoren, Elustondo trikitalariak.

14:00 Bazkari herrikoia Adarra jatekxan. Andoni Egaña eta Amets Arzallus. Txartelak bertan salgai.

21:00 Afarria Xoxokako eskolan. Bakoitzak berea eramanda.

ASTEARTEA 3

18:00 Idi dema. Artola eta Matxainen eskutik.

OSTEGUNA 5

20:30 Zahagi-ardoa Xoxokako eskolan. Jatekoa bakoitzak berea eraman! Edaria doan!

22:30 Gau sorpresa.

OSTIRALA 6

18:00 Apustua: Xoxokako gazteen artean.

20:30 Bertso-afaria Xoxokako plazan Amaia Agirre eta Sebastian Lizasorekin. Tiketak Adarra, Zelai eta Guria tabernetan salgai.

01:00 Gaupasa Albabarrunaren eskutik.



Gau sorpresa ostegunarekin izango da, aurtengoan. AIURRI

LARUNBATA 7

11:30 Hamaiketakoa Xoxokako eskolan. Auzoko adinduek doan.

11:30 Puzgarriak haurrentzat.

12:30 Pentatloi ikuskizuna.

16:00 Mus azkarra txapelketa Xoxokako eskolan. 15:00tan izen-ematea.

16:00 Puzgarriak haurrentzat.

16:30 Xoxokako lehen Putt Txapelketa. Urnieta Pitch & Putt golf zelaian.

17:00 Gorriti eta bere animaliak plazan.

17:30 Toka eta karabina txapelketa Eskola ondoan. Jarraian, txokolatea haur guztientzat.

20:30 Betizu jatea plazan. Tiketak: Adarra, Zelai eta Guria.

01:00 Gaupasa: Laiotz.

02:00 DJ Fresa Morango Xoxokako eskolan, goizaldera arte.

IGANDEA 8

12:30 Meza nagusia. Ondoren, Egape dantza taldea.

17:30 Herri kirol lehiaketa auzoko gazteen artean.

18:00 Sagardo-dastaketa.

20:30 Festen amaiera.

SANMIEL
JAI ZORIONTSUAK
PASA!

BIZI TOKIKO MERKATARITZA,
BIZI URNIETA!

Eraso matxistei lekurik

EZ!

Urnietako udala

Jaietan ere aske maitatu, aske gozatu.

URNIETA. 2023KO SANMIELAK

Arne Fernandez



Fernandez, aurtengo kartel iragarlea eskuetan. AIURRI

“Garrantzia eman diot Mielari, protagonista bihurtu dut”

ANNE FERNANDEZ DIEZ SANMIELETAKO KARTELAREN EGILEA

Kolore biziak erabili ditu irabazleak jaietako kartel iragarpena egiteko. 2018an ere irabazi zuen lehiaketa

Alba Cabrera Jauregi URNIETA

Anne Fernandez Diezen irudi batek ilustratu du aurtengo jaien egitaraua. Ez da irabazten duen lehen aldia, 2018an, berak eskuz egindako irudi batekin iragarri baitziren Sanmielak. Oraingoan, digitalki egin du.

2018an irabazi zenuen, lehenengoz, jaien kartel-lehiaketa. Aurten ere, zure irudi batek ilustratu du festen egitaraua. Pozgarria al da bigarren txapelketa irabaztea?

Oso pozgarria da. Ilusio handia egiten du herriko kaleetan zure kartela ikusteak. Gainera, egindako lana baloratu egiten dute herrikideek, kaletik geratu ditate gauza bat edo beste esateko. **Urnietarra izateak abantailak ekarri al dizkizu?**

Bai, azken finean, jende ugari parte hartzen du lehiaketan, bai urnietarrak, bai beste herri batzuetakoak. Beraz, zein ideia jorra ditzakedan pentsatzen laguntzen dit herrikoa izateak, zerk erakartzen duen, zerk ez... Finean, Urnietan bizita, bertako errealitatea gertutik ezagutzen dut. Kanpokoek, aldiz, informazio bila, denbora-tarte luzeagoa hartu behar dute, erreferentzia onak aurkitzeko.

Zaila al da originala izatea?

Bai. Lanketa handia eskatzen duen proiektua da: zirriborroak sortu, informazioa jaso, ideiak bildu eta aldaketak egin behar dira. Nire kasuan, Urnieta ondo ezagutzen dudanez, lana asko errazten da.

Aurten, Mielari berebiziko garrantzia eman diozu.

Behin baino gehiagotan agertu da karteletan Miela, bigarren mailako pertsonaia gisa, ordea. Oraingoan, inportantzia eman diot Mielari, aurpegia jarri eta protagonista bihurtu dut. Hori horrela, pertsonaia kartelaren

erdigunean jarri dut, zurrunkilo moduko batean, ospakizungiroa hark sortuko balu bezala. **Nola alderatuko zenituzke 2018ko eta aurtengo kartelaren sormen-prozesuak?**

Bezperako egunean egin nuen 2018ko kartel-irabazlea. Amak lehiaketan parte hartzea animatu ninduen, eta, azkar batean, zirriborroa egin, txukundu eta aurkeztu egin nuen. Lan azkarra eta inprobisatua izan zen. Aurtengoan, lanketa handiagoa egin dut: tableta grafikoa erosi nuen lehen aldian irabazitako sariarekin. Bada, prozesu ezberdina izan da, malguagoa eta moldagarriagoa. Dena dela, oso gustuko dut teknika manuala eta digitala lan berean integratzea; izan ere, egungo baliabide teknologikoen prozesu hori guzta gauzatzen laguntzen dute.

Sanmieletako zein ekitalditan ikusiko zaitugu?

Txosna-gunetik gertu bizi naiz eta hantxe egongo naiz, bertan antolatutako hitzorduetan. Musika-kontzertuei dagokionez, ezer gutxi ezagutzen nituen egitaraua iragarri zutenean. Azken boladan entzun ditut eta oso talde interesgarriak iruditu zaizkit.

"TXOSNA-GUNETIK GERTU BIZI NAIZ ETA HANTXE EGONGO NAIZ, BERTAKO HITZORDUETAN"

"OSO GUSTUKO DUT TEKNIKA MANUALA ETA DIGITALA LAN BEREAN INTEGRATZEA"



MUAZPI

Harategia

- Bertako haragia
- Jaki prestatuak
- Delikatessen
- Ardotegia

Gora Urnieta!

Errekalde, 14. Urnieta
943 008 304 / 665 73 78 71
muazpi@gmail.com



Teresa Amuategi parkea

“Teresa Amuategi” izena jarri dio Urnietako Udalak Maximo Yurramendi kaleko parkeari, omenduak “Urnietako historia berreskuratze eta zabaltzeko egindako lanagatik”

Erredakzioa URNIETA

Teresa Martinez Gorrotxategi (Deba, 1918-Urnieta, 2004) herriko emaginaren eta idazlearen gorazarrez izendatutako parkea errealitatea da. Joan den larunbatean egin zuen inaugurazio-ekitaldia Udalak, omenduaren senitartekoen eta gertuko laguntzaz. San Juan plazatik abiatu zen Danbolin Txistulari Banda eta Txoko-Maitean geldialdia egin zuen, Amuategiren bizitokia izan zen etxean. Bertan, Egape Dantza Taldeak agurra dantzatu zuen. Amaitzeko, lore-eskaintza egin zuten parkean bertan.

Emagina eta idazlea

Omenduaren izena daraman plakak honela dio: “Ez dago sinesterik Teresa Amuategiren lana, Urnietako emagin eta praktikanta gisa. Zenbat bisita gure baserrietara bide txarretatik, egunez eta gauez, egun bero eta hotzetan, lehor eta euritsueta. Urnietako bi belaunalditako haurrak bere eskuetatik pasatu ziren. Beti aurkitzen zuen astia bere zaletasuna, idaztea, asetzeko. Teresak, bere ekoizpen literarioa sinatzeko, bere aitaren bigarren abizena erabili zuen, eta, beraz, Teresa Amuategi gisa sinatu zituen bere lan guztiak. Bera izan da Urnietako historia gehien sakondu duen historia-larietako bat, eta, haren ikerkari esker, haren zati handi baten berri dugu”.



Omenduaren izena daraman plaka ipini dute parkean. AIURRI



Txistularien laguntzaz plazatik parkera jaitsi eta lore-eskaintzarekin borobildu zuten hitzordua. Amuategiren ondorengoak hurbildu ziren ekitaldira. AIURRI

DEIALDIA

ITAIA URNIETA

Etxeratze kolektiboak Sanmieletan

“Egungo errealitatean etxera seguru eta lasai iristea ez da beti aukera bat emakumeontzat. Hau bermatze aldera antolatu ditugu etxeratzeak. Elkartzeko lekua Pintoreko portxea izango da, txosnagunetik gertu geratzen baita, seinalizatua egongo da. Egun bakoitzean hainbat hitzordu ipiniko dira bertan. Edozein emakumek etxera bidean lagunduta joan nahi badu, zehaztutako orduan bertaratzearekin nahikoa da, arduradunak prest egongo dira elkarrekin bidea egiteko. Bolondres bezala txandetan parte hartu nahi izatekotan ere, idatzi 688816333 telefono zenbakira”.

Poxta Zaharren txupinazoa, 19:00tan

Gazte kuadrillen elkarte XX. urteurrenera iritsi da. Egitarauan agertzen ez bada ere, txupinazoa botako dute txosnagunean. Irailaren 27an izango da, 19:00tan hasita.

Trafiko aldaketak herrigunean

Zaldundegi parean hasi eta Goidirainoko Idiazabal kaleko errepide zatia ostiraletik igandera itxita izango da, irailak 29 - urriak 1 bitartean. Txupinazoa garaian eta igande iluntzean, bestalde, Etxeberriko biribilguneetik plazarako bidea itxita egongo da.

Udal zerbitzuetan jai, San Migel egunean

Bertan arreta zerbitzua eta gainerako Udal zerbitzuak itxita egongo dira, ostiral honetan.

Ordubetez aparkatzeko sistema, bertan behera jaietan

Jaietan, Pintore kalean txosnak jarri dituzte, eta, Errekaldeko aparkalekuan, barrakak. Hori dela eta, gune urdineko TAO gunea bertan behera geratuko da. Urriaren 9ra bitarte luzatu du erabakia Urnietako Udalak, “aparkaleku horiek kentzeak sortuko dituen eragozpenak arintzeko” argudiatuta. Behin behineko neurria da, hori bai.

Bus geltokien kopurua mugatuko da, asteburuan

Trafikoari dagokion mozketak iraun bitartean, bus geltokien kopurua mugatu egingo da. Idiazabal kalean mozketek irauten duten bitartean, bidaiariek bi autobus geltoki edukiko dituzte aukeran: Denda Berri edo Elkarteen etxearen ondoko biribilgunean dagoena eta Ermotegiko biribilgune berrikoa. Irailak 29-urriak 1 bitartean, bereziki.



Sanmiel jai
zoriontsuak opa
dizkizuegu!



salestarrak
MAGALE · URNIETA

"Hamabi urterekin hasi nintzen taula gainean"

PAULA BACO SURFLARIA, SURFSKATERRA ETA HEZITZAILEA

Andoainarra oso trebea da itsasoan zein lurrean; umetatik olatuak lagun izan dituen arren, gurgildun taulekin ere ausartu zen. Egun, bere afizioa pasio egin du



Paula Baco, surflaria eta surfskaterra. BACO

Mikel Arberas ANDOAIN

Paula Baco andoainarra umetatik egon da surf eta skate munduan murgilduta. Uretan zein gurgil gainean ederki maldatzen da eta bere kabuz praktikatzear gain, monitore gisa ere jardun izan du. Esaterako, igandean egin zen "Txiki surf eta bodyboard" topaketako zuzendaria izan da, baita, surfskate modalitateko monitore ere. Ibilbide luzea egin du gaur arte, eta erritmo berean segiko du etorkizunean.

Zer da surfskatea?

Duela urte batzuk sortu zen skate modalitatea da. Ureratik kanpo, surfeko mugimenduak praktikatzea eta errepikatzea du xede. Gainera, skatearen eta longboardaren arteko zerbait da, hots, baten tabla eta bestearen gurgilak batuta sortzen den zerbait dela esan genezake. Nahiko kirol berria da.

Praktika berritzailea dela aipatu duzu...

Bai, halaxe da. Munduko surfskate markarik garrantzitsuena eta bide-erakuslea Hondarribiko Yowsurf da; munduan asko hedatu da eta milaka jarraitzaile ditu sare sozialetan. Horrez

gain, kirol gutxitua izatetik, profesionalizatzeko bidean da surfskatea.

Noiz hasi zinen modalitate horretan murgiltzen?

Hamabi urterekin hasi nintzen taula gainean, longboardean, eta duela bospasei urte surfskatean. Eta zergatik eman nuen jauzi modalitate batetik bestera? Umetatik surfean aritu naiz eta, hasiera batean, longboardean hasi nintzen lurreko alternatiba gisa, ez baitzegoen surfskate modalitatea garatuta. Beraz, ondoren, skateara jauzi egitea otu zitzaizkidan, baina lesionatzeko arrisku gehiago zegoela medio alternatibak bilatzen hasi nintzen. Horrela ezagutu nuen surfskatearen mundua eta, segituan, erosi nuen taula. Praktikotasuna bilatu nahi nuen.

Zer behar du pertsona batek horrelako kirol batean hasteko?

**"KIROL GUTXITUA
IZATETIK,
PROFESIONALIZATZE
BIDEAN DA
SURFSKATEA"**

Gogoia, besterik ez. Izan ere, taula oso egonkorra da eta gurgilak handia dira. Ikasteko modalitate errazena dela esango nuke. Gurgil gainean ibiltzen ikasi nahiez gero, hobereana surfskatearekin hastea da. Horrez gain, lehenengo aldiz ibiltzeko monitore bat edukitzea gomendatuko nuke.

Taula horrekin praktikatzeko zein gune da onena?

Asfaltoan ibiltzen naiz gustuen, izan ere, hoberen eusten duen lur mota da. Hala ere, modalitate berria denez, gutxinaka eremu ezberdinetan ibiltzeko surfskateak saltzen hasi dira; hau da, errepiderako edota skate parkerako, beste batzuen artean. Geroz eta aukera gehiago sortzen ari dira mundu horretan.

Asko harritu nau surfskateko marka onena euskalduna izatea, zehazki, Hondarribikoa...

Izatez, skateko marka bat da, eta modalitate hori indarra hartzen hasi zela ohartu zirenean, surfskatean murgildu ziren bete-bete. Esan beharra dago marka garrantzitsu gehiago ere badaudela, baina Yowsurf izango litzateke erreferentzia-koena.



Mendizabal eta Arrizabalaga, sari banaketa ekitaldian. MASTERCUP

Arrizabalaga-Mendizabal, San Mateotako txapeldunak

Aurreko larunbatean jokatu zen finala Adarragan, harmailetan 900dik gora pilotazale zirela

Erredakzioa ANDOAIN

Pilotak poz handia eman dio Nora Mendizabal andoaindarri. Han eta hemen ibili da, txapelketaz txapelketa, eta hainbat txapel dotoreak eskuratu ditu. Azkena, Errioxako San Mateo txapelketan. Elite mailan, Olatz Arrizabalaga eta Nora Mendizabal koska bat gora aritu ziren final osoan. Leire Garai eta Andrea Capellan 22-9ko emaitzarekin garaitu zituzten. Lauren artean bat aipatzekotan, hura Olatz Arrizabalaga da. Nora Mendizabal alboan izan zuen txapela eskuratzeko garaian,

baina finala aurrealdean erabaki zen. Andoaindarraren lagunak hartu zuen protagonismo berezia, larunbat arratsaldeko finalean. Emakume Master Cup txapelketak zabaldutako kronikaren arabera, "bere egunik onenetan egin ohi duen bezala, aurrelari bizkaitarrak erritmo bizia ezarri dio finalari eta aurkariak ez dira gai izan horri eusteko". Bigarren urtez jarraian eskuratu du txapela, Arrizabalagak.

Errioxako txapelketaren hirugarren edizioan, emakumezkoen zirkuituan ezinbesteko bilakatu da San Mateoa.

Leizaranen debuta, nesken Euskadiko senior ligan

Leizaran Lanbroa taberna Berango-Urdulizen aurka ariko da,

asteburuan, Allurralden. Denboraldiko lehena izango da.

Gizonezkoetan, Gipuzkoako 1. lurraldeko txapelketan, Urnietak eta Leizaranek elkarren aurka jokatuz ekingo diote ligari.



Urnietak
udala

"Mugitu Andoain", jarduera fisikoen eguna

Euskalduna Mendigoizale elkarte, Euskalduna Andoaindarr, Leizaran, Ganbara, Karate Andoain, Txirringandoain, Soinketako +65 urteko taldea, Andoaingo Txirringulari Eskola, Oskarbi eta Gazteleku elkartearen lankidetzari esker atera zen aurrera

Erredakzioa ANDOAIN

Jarduera fisikoen aldeko ekimena bazen ere, kirolarien lana aitortzeko aukera baliatu zen. Banaka, honako hauexek izan ziren aipamena jasotako kirolariak: Irati Aranguren, Izaro Etxarri eta Ixiar Alkain txirringulariak, Nora Mendizabal pilotaria, Daniel Fernandez kayak surfeko kirolaria eta Jon Jauregi arraunlaria. Taldeka, Leizaran eskubaloiko neska kadeteen urdina taldea eta Oskarbi Gimnasia erritmikako elkartearen infantilen taldea Gipuzkoan sari bana lortu dute. Ganbara saski taldeko nesken kadete taldearen sorrera nabarmendu zuten ere.



Saskibaloian aritzeko neska ugari elkartu zen Karrikan. AIURRI



Aurten omendu dituzten kirolariak, Udal ordezkariekin batera. AIURRI



Adinekoak pozarren aritu ziren. AIURRI



Gimnastak Etxeberrieta plazan elkartu ziren. AIURRI



NIRE USTEZ

ANDONI URBISTONDO URNIETA

Mendiaren bihotzean



Jende lepo bete zen Sarobe antzokia, irailaren 21ean. AIURRI

Pasa den ostegunean Mendifilm-eko lagunen urteroko bisita izan genuen Urnietan, Sarobe Arte Eskenikoaren Gunean. Pixkanaka indarra hartu duen ekimena da, baina urtero jendea bertaratu arte ezin jakin herritarren, inguruko herrietako lagunen arreta esnatzen jarraitzen ote duen. Osteguneko, seigarren ekitaldia, arrakastatsua izan zen, berriro. Zinema aretoa lepo betetzetik gertu, Urnieta mendiko pelikulen gose zegoela esan genezake erratzeko beldurrik gabe. Urnieta eta ondoko herrietako mendizaleak, inguruetatik hurbildutako jende asko baitzegoen Saroben.

Herri txikien artean lehena, tradizio bilakatu da MendiFilm Urnietan. Bi ordu pasa, iazko ekitaldiko lan sorta dastatzen. Aurtengoa, berezia, mendiak beretzat gorde baitu betirako Amaia Agirre Gonzalez herritarra. Amaia oroitzeko erakutsi zen bideoak, eta Aitor Elduaizen hizlariak botatuko hitzek aspaldi gogoratzen ez dudana isiltasun sakona eragin zuten Saroben. Txalo zaparrada soinu baten segida ekarri zuen isiltasuna.

Ederrak lau pelikulak, jendea aho bete hortz uzteko modukoak, euren umore eta ironia kutsuz zipriztindutakoak. Jakin-min gosez, jendea bukaeran, Charles Dubouloz alpinista frantziarrak Alpeetako Grandes Jorasses mendigunean egin zuen balentria, edo erokeria, nolatan osatu ahal izan zuen, galdezka. Izan ere, sei-zazpi egun 1.000 metroko horma batean zintzilik, bakar-bakarrik, negu betean eta -30ko tenperaturarekin. Hiltzeko arrisku handiak hartuta, alpinista beraren ahotan.

Ikusle bati entzuna, Sarobeko irteeran: "Zertarako, zergatik, hainbeste?". Maite dut galdera hori entzutea. Erantzunak bizkorrena ere hausnartzen uzten duelako: "Eta zergatik ez?". Saroben ba ziren, ginen, gure bizitzan tarteka mediant erokeria, edo gehiegikeriaren bat egin dugunak. Bakoitza bere arrazoiekin, mendira joan eta muturreko abenturatan murgiltzeko. Neuk Albert Einsteinen esaldi ezagun bat erabiliko dut, zergati moduan: Bizitza etorkizunerako prestakuntza da. Eta prestakuntzarik onena, etorkizunik batere ez balego bezala bizitzea da.

HITZORDUAK

ASTEARTE EGUERDIA BAINO LEHEN IGORRI HITZORDUAK. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

ASTEAZKENA 27

URNIETA Sanmielak

Egitarau osoa 8. orrialdean aurki daiteke.

Irailak 27-Urriak 1.

ANDOAIN Herri bilera

Udalak antolatuta, egoera ekonomikoaren berri eman eta agintaldi berrirako programa aurkeztuko dute.

19:00, Bastero.

OSTEGUNA 28

URNIETA Jabekuntza Eskola

Emaginen irakurketa tailerra, Pepa Bojoren tailerra, Garbiñe Larrearen hitzaldia, zineforuma... Lekaion izango dira jarduera guztiak.

Izena emateko epea: Irailak 29.

ANDOAIN, URNIETA Euskara

Ikasturte berrian euskaraz trebatzeko hamaika aukera gertuko euskaltegian.

AEK euskaltegiak.

ANDOAIN Zozketa

Salkin elkarteak antolatuta, erosketa egiten duten erosleen artean 2500 euroko balioa duen bidaia zozkatuko da.

Parte hartzeko epea: Urriak 13.

ANDOAIN Parte-Hartzea

Andoaindarrek erabakiko dute, 2024ko aurrekontutik, 250.000 euro zertara bideratu. Parte hartzeko aukera zabalik da, 16 urtetik gorakoentzat.

Azken eguna: Urriak 6.

ANDOAIN Plenoa

Udalaren osoko ohiko batzaraldia. Internet bidez edo bertatik bertara jarraitzeko aukera dute herritarrek.

19:00. Udaletxea.

OSTIRALA 29

ANDOAIN Ataun of the dead trilogia

Aurrekoan haizeteagatik bertan behera geratu zen hitzordua, data berrian eskainiko dute.

21:00, Goikoplazako frontoia. Euriarekin Basteron.



ANDOAIN Bastero Kulturgunearen urteurrena

Urriak 3, asteartea. Urteurrenaren eguna:

20:00. Kontzertua.

Esne Beltza zuzenean. 12 euro, ordu gaztea 3 euro.

Urriak 4, asteazkena:

19:00. Mahai-ingurua.

Euskaraz, aldibereko itzulpenarekin.

Urriak 5, osteguna

19:00. Adierazpena eta DJ saioa. Kultura manifestuaren irakurketa, herri eragileen laguntzaz. Plaza Morea.

Urriak 6, ostirala

19:00. Kontzertua: Ttottekustik taldea Goikoplazan.

20:00. Kontzertua: Fino's band Zumea plazan.

Udal Musika Eskolatik ateratako bi talderen emanaldia.

Urriak 16-Azaroak 16:

18:30. Erakusketaren irekiera ekitaldia: "Argazkiak eta objektuak" izeneko erakusketa.

Azaroak 3, ostirala

19:00. Ekitaldia. Urteurreneko ekitaldi nagusia.

ASTELEHENA 2

URNIETA Xoxokako jaiak

Bertsu bazkaria, gau sorpresa, herri-kirolak. Egitarau osoa 9. orrialdean aurki daiteke.

Urriak 2-8.

ASTEAZKENA 4

ANDOAIN Jabekuntza eskola

Kosmetika tailerra. Izen-ematea Berdintasun sailean eta Atarian.

17:00-20:00, Urigain.

Urriak 4, 11, 18, 28.

URNIETA Kontzertua

"Golden Apple Quartet" en azken bira. Aurre-estreinaldia: "Vamos que nos vamos".

19:00, Sarobe.

OSTEGUNA 5

ANDOAIN Jabekuntza eskola

Elektrizitate lantegia. Izen-ematea Berdintasun sailean eta Atarian.

17:00-20:00, Urigain.

Urriak 5, 19, 26.

LARUNBATA 7

ANDOAIN Dantza

Hiru (3) izeneko dantza ikuskizuna, Neri(H)ari konpainiaren eskutik.

18:30, Bastero.

ANDOAIN Erakusketa

Hiru (3) izeneko dantza ikuskizunari lotutako erakusketa: Argazkiak, musika eta hitzak.

20:00, Irekiera ekitaldia.

Urriak 7-28. Bastero.

ZINEMA



ANDOAIN

BASTERO

La voz del sol

Lar, 30. 19:30, 22:00.

Ig, 1. 19:30.


Astl, 2. 19:30, 22:00.

Una familia de

superhéroes

Lar, 30. 17:00.

Ig, 1. 17:00.



SINOPSIS



La voz del sol

Zuzendaria: Carol Polakoff. **Aktoreak:** Carmen Machi, Karra Elejalde, Alicia Lobo, Antonio Duran, Kandido Uranga... **Herrialdea:** Espainia (2022). **Hizkuntza:** Gaztelania. **Generoa:** Drama, komedia. **Iraupena:** 94 min.

Machi eta Elejalde, berriro elkarrekin

1965ean, Iruñean girotutako filma da. Gazte baten bizitza jarraitzen du, mundu bizi eta sensual batean esnatu eta emozionalki hazten den bitartean. Benetako gertaeretan oinarritutako film hunkigarria. Protagonista Alan Jolis idazle estatubatuarra da. Parisko

etxean zaintzen duten nerabearekin sorterrira itzultzen diren erbesteratuen istorioa kontatzen du. Erbesteratuak Carmen Machi eta Karra Elejalde dira, azken urteotan elkarrekin film sonatuak egindakoak. Zuzendariaren estreineko filma da.



andoainDARRA
euskaraz



Urrietan eskainiko dute aurre-estreinaldia. GOLDEN

"Atsegina izan da zuek guztiak irribarre egiten ikustea"

Urriaren 4an, asteazkenarekin, azken biraren aurre-estreinaldia egingo dute Urrietan

Erredakzioa URNIETA

Golden Apple Quartet Saroben da "Vamos que nos vamos" agurreko ikuskizuna prestatzen. Eduardo Errondosoro, Loyola Garmendia, Manu Romano eta Kike Ochoa laukotea igoko da taula-gainera, azken birari hasiera emateko. 40 urtez ibilbide oparoa egin dute, musika, antzerkia eta umorea ardatz har-

tuta. Eta, hori guztia, ahotsetik abiatuz eta gorpuztuz. Sare sozialetan taldeak honako mezu hau eskegi berri du: "Smokinga eskegiko dugu. Mundu erdia 300 abesti baino gehiagorekin eta 3.000 antzezpenekin zeharkatu eta gero, eta mundu erdiko telebistak bisitatu ondoren, bagoaz. Mila esker denori, atsegina izan da zuek irribarre egiten ikustea".

Mankomunitatearen programa bikoitza

Lan gizarteratze ikuspegitik gure eskualde eta gizarteak dituen beharrei erantzun bat eman asmoz

Beterri-Buruntza Mankomunitatea / ESKUALDEA

Enplegu sozialeko programatik hurrengo ekimenen berri eman nahi du Mankomunitateak.

"Auzolanberri: Mendeko pertsonentzako arreta eta zaintza"

Profesionaltasun ziurtagiria jasotzen du oinarri gisa, eta prestakuntza osagarria, praktikaldi bekatuak enpresan eta kontratazio dirulaguntzen bidezko laneratze prozesuak ahalbidetzen ditu. Urritik martxora, goizeko ordutegian, Erroak elkartearen eskutik Martuteneko 27. Poligonoan dituzten instalazioetan. Informazioa 943 47 40 83 edo enplegu_soziala@beterriburuntza.eus e-postan.

"Gure artean, emakumeak: talentuak eta aukerak"

Inklusio baliabidea abiatuko da Andoainen, Gazte Lokalak duen egoitzan. Irailtik abendura bitarteko iraupena izango duen programak, emakumeentzako espazio seguru bat sortu, behar ezberdinak dituzten emakumeen arteko sarea eraiki eta esperientzia berriak ahalbidetzea du xede. Honetarako astean hirutan biltzeko aukera eskaini zaie parte hartzaileei, helburu profesionala eta ibilbide soziolaboral lantzen hasteko, oinarriko digitalizazioa, inguruaren ezagutza... landuz. Kasu honetan, informazio gehiago eskuratzeko 604 553 769 edo enplegu_soziala@beterriburuntza.eus harremanetan jarri.



Xabi Solano talde guztiarekin hurbilduko da Basterora. AIATURISMOA

"Bastero kulturgunea erreferentziatzeko gunea da"

Urriaren 3an, asteartearrekin, emanaldi berezia eskainiko du Esne Beltzak Basteron

Erredakzioa ANDOAIN

"Bastero erreferentzia bat da. Askotan jo izan dut hemen, kontzertuak ikusten ere izan naiz hemen. Urteurrenean ariko gara Esne Beltzarekin eta guretzat plazer bat da hemen izatea". Adierazpen horiek egin zizkion Xabi Solano Esne Beltza taldeko kantariak Joni Ubeda Aiurriko kazetariari, TTAP agerkari di-

gitalean laster argitaruko den elkarrizketa zabalagoan. Diskoaren azken prestaketan zuek, taldeko kantaria Basterora hurbildu zen disko eta bira berriko xehetasunak eskaintzera. Zortzigarren diskoa izango da, eta kantu bakoitzean nazioarteko artista baten lankidetzatza izango dute. "Bidaia modukoa da diskoa", adierazi du Solanok.


"Ataun of the dead" trilogia, Karlistaldiak gogoan hartuta

Udalak eta Bazkunak antolatuta, film emanaldia irailaren 29an izango da Goikoplazan, 21:00tan hasita

Erredakzioa ANDOAIN

Hiru filmek osatzen dute trilogia: Ataun of the Dead (22'), Joxean's Hil Eben (41') eta Napar Death (48'). Film hauek Katihotsak taldeak ekoitzia da Xabier Padin eta Beñat Iturrioren zuzendaritzapean. Filmek lehen karlistaldiko Tomas Zumalakarregi eta bere agindupeko mutilak "berpizten" dituzte, gure garaira ekarri eta umorez janzten ditu karlista eta liberalen artean sorturiko gerra eta gatazkak. Filmak jatorrizko bertsioan emango dira, euskaraz. Euriarekin, Bastero Kulturguneko ekitaldi aretoan izango da.

Ostiraleko emankizuna eta irailaren 16an egin zen Andoaingo guduari buruzko ibilaldi gidatuarekin batera Andoaingo



Afitxa. ATAUN OF THE DEAD

guduak eta lehenengo karlistaldiak Andoainen eta Beterri eragin zuten bortxakeria eta hondamendia gogoratzeraz datoz, ikuspegi anitzetik.

ZORION-AGURRAK



ANDOAIN
Hodei Olalde Vallejo
Zorionak Hodei!
Aurtengoan 8!!! Muxu potolo bat etzekoen partez!

Urte askuan!

- www.aiurri.eus
Zorion agurrak atalean.
- **Whatsapp bidez:**
619 16 35 37
- diseinua@aiurri.eus
- **Arantzibia 4-5, behea** Andoain
- **Telefono zenbakia:**
943 300 732.

Aiurriko kazetariaren lana oztopatu zuen Ertzaintzak

Aurreko ostiralean, Beterri-Buruntzako gazte eragileek deituta, manifestazioa deitu zuten Heranin. Asmoa Galder Barbado eta Aitor Zelaia euskal gazteen espetxeratze aginduaren aurka protesta egitea zen. Tokian tokiko manifestazioak deitu zituzten, eta, asteburuari begira, nazio mailako hitzordua deitu dute Gasteizen. Hernaniko manifestazioa aurrera zihoala, eserialdia egin zuten. Ertzaintza, egoera horretan, eserialdia indarrez desegiten hasi zen. Une horretan lanean ari zen Aiurriko Mikel Arberas kazetariari lan jardunerako zerabilen telefonoa kendu zioten, grabatzen jarraitu ez zedin. Tentsioa izan zen. Aiurriko kazetariak berreskuratu ahal izan zuen mugikorra.

ODOL-EMAILEAK

HITZORDUA

Urriak 9, astelehena.

16:30-20:30.

ANDOAIN,
Anbulatorioa

Hitzordua hartzeko:
943 007 884.



MERKATU TXIKIA

ALOKATU

Garaje marra alokatuta hartu nahiko nuke Andoaingo Ondarreta auzo inguruan. 660 122 632.

PARTE HARTZEKO

diseinua@aiurri.eus

619 163 537 - 943 300 732

BADATOR

GAU BELTZA

URRIAK 31, ASTEARTEA



Adi
deialdietara!

